

ESPALOI GAINETIK IBILGAILUAK PASATZEKO ETA GALTZADAN
APARKARLEKUA ERRESERBATZEKO LIZENTZIEN ORDENANTZA
ARAUTZAILEA

1.artikulua: Kontzeptua.

1. Toki Korporazioetako Ondasunen Erregelamenduan ezarritako herri jabariaren erabileran egin daitekeen esku-hartzea araubidearekin bat eginez, beharrezkoa ikusi da udalaren lizentzia bidez zilegiztatzea ondorengo egoera hauek:
 - a) Oinezkoentzako espaloien gainetik ibilgailuak pasatzea, galtzadaren eta norbanakoen erabilerako areto jakin batzuen bitartean, izaera iraunkorraz zein erabilera ordutegia zehaztua.
 - b) Galtzadako edo edozein herriaren erabilera publikoko lurzoruko azalera zehatz eta mugatu batzuk erreserbatzea eta gordetzea, garraio-ibilgailuak gelditu eta euren zama-lanak denbora mugatu batez gauzatzeko eta horretarako egunero finkatutako ordutegi baten barruan zehar.
2. Lizentzia horiek emango dira, baina Udalak uneoro berea du eskumena, herritarren interes publikoagatik edozein unetan aretoen erabiltzeko eta ibilgailuak aparkatzeko mugapenak edo debekuak ezartzeko.

2.artikulua: Aplikazio eremua.

Ordenantza hau Laudio udalerriko barruti guztian derrigor bete behar dute pertsona fisiko eta Erakunde ororen aldetik, publikoak zein pribatuak izan, aurreko artikuluan aurreikusitako herriaren jabetzapekoaren diren edo herri jabariaren azalaren erabileran.

3.artikulua: Dokumentazioa.

A) Espaloi gainetik pasatzeko eskaera idazkiari ondorengo dokumentu hauek erantsiko behar zaizkio:

1. Ibilgailuak pasatzeko baimena eskatzen den aretoaren erabilera lizentziaren kopia edo, aldi berean izapidetzen ari bada, erabilera eskaeraren kopia ere.
2. Aretoa kokatuta dagoen eraikineko enplazamendu plano, aurrez aurre duen kalearen izena adieraziz, gutxieneko 1/500 eskalan.
3. Aretoko instalazioen eta barruko banaketaren plano, beti ere, islatuz aparkalekuetara eta ibilgailuen trantsitu edo joan-etorrira xederatutako espazioak, dimentsioak, neurriak eta azalera akotatuz.

4. Izaera iraunkorraz aparkalekuan sartuko diren ibilgailuen titularren eta matrikulen zerrenda, aparkaleku-gordetegira xederatutako aretoetarako sarrera lizentzia eskatzen den kasuetan (Ordenantza honetako 4. artikuluko A1 eta A4 kasuak); ostera, beste erabilera batzuetarako xederatzen badira, hala nola merkataritza, industria edo zerbitzuak, jardueren oroit-idazkia, txostena edo memoria aurkeztu behar da (Ordenantza honetako 4. artikuluko A2 eta Aa3 kasuak).

B) Galtzadan edo herriaren erabilera publikoko lurzoruan ibilgailuentzako aparkatzeko lekua erreserbatzeko edo gordetzeko lizentzia eskaera idatziak, ondorengo dokumentu hauek aurkeztu behar ditu:

1. Eskaeraren oinarri diren beharizanen justifikazioa eta memoria.
2. Eskatutako aparkalekuen erreserbatzeko edo gordetzeko kokapen planoak 1:500 eskalan.

4.artikulua. Lizentziaren baldintzapenak.

A) Espalioen gainetik ibilgailuak pasatzeko lizentzia emateko, ondorengo baldintza hauek bete behar dira:

1. Ibilgailuentzako aparkaleku-gordetegi jarduerara xederatutako aretoak.
 - a) Aparkatzeko plazetan, gutxienez ere 6 ibilgailuentzako erabilera ahalmena, 2,40 x 4,50 m
 - b) Aretoaren azalera eraikia 120 m² baino handiagoa izatea.
2. Merkataritza, industria edo zerbitzu jardueretara xederatutako aretoak, ibilgailuak barrura sartzea derrigorrezkoa dutenak.
 - a) Aretoan ibilgailuak normal eta ohiko izaeraz sartzea ezinbestekoa egiten duen jardueraren izaera.
 - b) Aretoaren azalera eraikia 100 m² baino handiagoa izan beha da eta zama-lanetarako iraunkortasunez xederatutako azalera erabilgarria 40 m² izan behar da gutxienez.
3. Ibilgailuen konponketa tailerreko jarduera duten aretoak.
 - a) Aparkatzeko gutxienezko azalera erabilgarria 20 m² izan beha da.
4. Dauden familia bakarreko etxebizitzak garajera xederatutako partzelekin.
 - a) Aldez aurretiko inolako baldintzarik gabe, kasuan kasuko, kasu zehatz bakoitza aztertuko da eta, hala badagokio, baimena emango zaio, aldez aurretiko aldeko txosten teknikoaz.

- b) Galtzadan edo herriaren erabilera publikoko lursail urbanoetan aparkalekua erreserbatzeko:

Interes publikoko zerbitzuak gauzatzeak edo horiek hobetzeak justifikatuko du ordutegi bidez mugatu eta debekatutako denboraldi batez, ibilgailuak aparkatzeko herriaren erabilera publikoko terrenean edo galtzadaren azalera mugatzea. Erreserba horretarako Udalak erabakiko ditu betebeharrak, eta bere esku gordetzen du emandako baimena berritzeko ahalmena eta edozein unetan erabaki dezake erabilera baldintzak aldatzea, horrek erabiltzearen aldeko kalte-ordain eskubiderik sortu barik.

5. artikulua. ZEHAZTASUN ESPAZIALAK.

B) Espaloi gainetik pasatzeko lizentziarako.

1. Ibilgailuen pasadako zabalera, hots, lizentziaren zilegizko erabilerak eragindako espaloien luzera, honako hauxe izango da:

a) 5. m Ordenantza honetako 4. artikuluko A1 apartatuan aurreikusitako kasuan (ibilgailuen aparkaleku-gordetegiarentzako)

b) 2.5 m Ordenantza honetako 4. artikuluko A2., A3., eta A4. kasuetarako (1 apartatuan aurreikusitako kasuetarako (merkataritza, industria edo zerbitzuak, ibilgailuen konponketa tailerrak eta familia bakarreko etxebizitzetako garajeak).

2. Espaloi gainetik ibilgailuak pasatzeko lizentzia ematearen jarduerak berez eta era automatikoa erakarriko du espaloiko bordilloa edo zintarria beheratu beharra eragindako luzera osoan: hots, dagokion ibia egikaritzea. Ibiak ez sekula eraldatuko espaloien sestra ofiziala bere fatxadarekiko plano bertikalarekin topo egiterakoan edo herriaren jabetza publikoa beste jabetza pribatu batzuekin, egikaritzeko orduan hiria diseinatzeko ohiko parametroetara doitu.

3. Espaloi gainetik ibilgailuak pasatzeko lizentzia behar duen aretora sartzeko zonaldean aparkatzeko baimen orokorra edo espaloi bazterretan ibilgailuak gelditzeko baimena dagoenean, lizentzia emateak erakarriko du, berarekin batera, aldi berean, pasatzeko bideari dagokion espaloi zatiaren aurreko luzera osoan aparkatzea debekatuta geratuko dela, debekuzko disko erregelamenduzkoekin seinalizatuz aretora sartzeko bazter bietan fatxadako plano bertikalean., Zirkulazio Kodeak bere 171. artikuluan behartzen duen altueran. Espaloi-ertz zintarri beheratua edo sarrerako ibia banda zuri eta gorri margotuko da Zirkulazio Kodeak agintzen duenarekin bat.

B) Ibilgailuak aldi baterako uzteko gordetako azalera, lizentzia bidez baimendutakoa, seinalizazio egoki eta argi eta garbia eduki beharko du galtzaren zoruan edo Zirkulazio Kodeak zehazten duen aparkaleku erreserbatuentzako diskoen bidez.

6. artikulua. Denbora zehaztasunak.

A) Espaloi gainerik ibilgailuak pasatzeko lizentziak, iraupen hauek izan ditzake:

1. Betirakoa, Ordenantza honetako A1. eta A4. kasuetakoa (ibilgailuen aparkaleku-gordetegi jarduerara xederatutako aretoak) edo larrialdi zerbitzuetarako edo ageriko interes publikodun aretoak direnean.
2. Jarduerak duen lan eta merkataritza ordutegira mugatuta, baina sekula ere ez Ordenantza honetako A2. eta A4. kasuetan eguneko zortzi (8) ordu baino gehiago (merkataritza, industria eta zerbitzuak), beti ere, aurreko paragrafoan ebatzitako salbuespenekin.

B) Galtzadan aparkatzeko lekuen erreserbak emango dira denbora aldi jakin baterako eta, beti ere, zortzi (8) orduko lan ordutegiaren mugaz.

7. artikulua. EKONOMI - ERANTZUKIZUNAK.

1. Lizentzia ematen zaion pertsona titularren kontura izango dira ibia egitea edo espaloiko zintarria beharrezkoa, hala nola seinalizazio mota ezberdinak ipintzea eta horiek ikusgarritasun bikaineko egoeran mantentze - lanak egitea.
2. Espaloi gainerik ibilgailuak pasatzeko lizentziaren titularra da objektiboki ibilgailuak pasatzeak espaloi gainerik bai espaloian bai bere zintarrian eragin liezazkiokoen kalte material guztien erantzule. Horri aurre egiteko, trantsitu errodatuaren beharrezanetara espaloia egokitzea, konpontzea edo indartzea derrigorrekoa du lizentzia lortu aurretik.
3. Pasatzeko lizentzia bat eraginkorra izateko, eskatu duen titularrak Udal Gordailuzaintzan ordaindu behar du bermea bai espaloia bai zintarria bere egoera normalera bueltatzeko berriro jartzeko lanak ordaintzeko moduko bestekoa. Horren kostuan Udal Zerbitzu Teknikoek baloratuko dute kasu bakoitzean, kasuan kasuko.
4. Pasatzeko lizentziak emateak, ondorio guztietarako baldintzatuta geratuko da, aldez aurretik udal kanona ordaindu behar izatera, 30 egutegiko egunen barruan, lizentzia eman zen datatik zenbatzen hasita, hala nola horren mantentze-lanen ondoriozko aldiroko kuotak ordaintzea.
5. Beraz, ibia kentzea eta espaloiko zintarria berriro jartzea, Udalak berak egin ditzake lan horiek, zein ordeko izaeraz beste norbaiti esleitu hori egiteko, zuzenean bermea jarri duenaren kargutan, eta bermearen zenbatekoa nahikoa ez balitz izango titular arduradunari zuzenean ordainaraziz.

Udal Zerbitzuek erretira ditzakete seinalizazioak ere eta baliogabetu, baldin eta edozein gauza dela kasua emandako pasatzeko edo erreserba lizentzia baliogabe geratuko balitz edo lizentzian bertan jarritako baldintzak ez betetzeagatik.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehena.- Ordenantza hau indarrean sartu aurretiko egitatezko egoerek hiru (3) hilabete izango dute legezatzeko.

Bigarrena.- Ordenantza hau indarrean sartu aurretiko egoeren tolerantzia onartuko da, baldin eta, aplikazio zorrotzez, euren jardueran eragin kaltegarriren bat jasatekoak badira. Kasu horietan, Udal Batzorde Iraunkorrek hartuko du dagozkion txosten teknikoak aztertuta eta aurreko xedapenean adierazitako epean interesatuek egindako berariazko eskaera ere ikusita.

AZKEN XEDAPENA.- EKONOMI - ARAUBIDEA

Galtzadatik eraikin eta orube barruetarako ibilgailuen sarreren ondoriozko bide publikoaren aprobetxamendu bereziek eta galtzadan aparkatzeko lekua erreserbatzeagatik sortuko liratekeenak, indarrean dagoen 14. Ordenantza Fiskalean ezarritakoaren arabera tributatu dute, Ordenantza honen aurretiko kuoten ordainketak ez duelarik suposatzen, inola, ibi baimena edo aparkatzeko lekua erreserbatzeko lizentzia emateko exijitzeko eskubide denik.

Laudio, 1982ko maiatzaren 27

JARRAIBIDEA.- Jasota gera dadin, Espaloi gaineratik Ibilgailuak Pasatzeko eta Galtzadan Aparkatzeko Lekua Erreserbatzeko Lizentzien Ordenantza Arautzaile hau, behin behineko izaeraz onartu egin zela Udalbatzarrak 1982-05-27 egunean egin zuen Osoko Bilkuran.

Ziurtatua, Laudion, 1982ko ekainaren 5ean.

Jarduneko Idazkariak

-Jose Luis Cueto Bulnes-